

Asisko gutuna

2016ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

91. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hirugarren Printzipioa lantzean gure begirada Jainko berarena izatea nahi dugu. Ebanjelioek errepikatzen digute Jesusi “erraiak astintzen” zitzaizkiola hainbat pertsonen egoeren aurrean (itzulpenetan “hunkitu” edo “gupida sentitu” bezala agertu arren). Gure begiradak ere erraiak astintzerainokoa izan behar du.

Gogoetarako gaia

Babesik gabea babestu

Neure buruari hainbatetan galdetzen diot, ez ote garen bizi mundu zoratu batean, bertan hainbeste gauza gertatzen direlarik ulertzeko eta konponbidea antzemateko zailak.

Albo batera utziz munduan diren botere eta diruagatiko gerra beldurgarriak, mota guztietako indarkeriak, zuzengabekeriak, denak izugarriak, berorietan zer paper jokatzeko dugun ere ez dakigularik. Baina gaur guregandik gertuagoko zerbaiti ekingo diogu. Ia egunero entzuten dugu, emakumeren bat bere bikotekideak edo bikotekide-ohiak hila izan dela, esaten digute norbaitek bere buruz beste egin duela gaixo zegoelako edo beste irtenbiderik aurkitzen ez zuelako bizitzea tokatu zitzaion zentzu-faltarentzat. Mintzatzen zaizkigu sexuz abusatuturiko eta sare sozialen esku utzitako hurrez, eta beste hainbeste babesgabez, laguntza eskatzeko oihu egin ezin dutenez.

Eta hau da galdera: zer egin? Nik ez daukat erantzun bat; soilik dakit ezin dudala beste aldera begiratu ezer gertatuko ez balitz bezala, eta

betiko bizimoduarekin jarraitu. Ezta ere ezin dut neure burua zentzu-ezak eramaten utzi eta zuloan erori, neure baitan itxita gelditu eta hainbeste babesgabezi babesgabe emateari utzi, haien arazo eta bizitzarentzat konponbiderik ez daukadalako.

Jasatea tokatu zaigun egoera hauetan, sarritan gertutik gainera, soilik gelditzen zaigu apalki hurreratzea sufritzen duenarengana, bakarrik dagoenarengana, gure sostengua behar duenarengana, hitz bat edo animo-keinu bat eskainiz.

Begira dezagun geure ingurura, kanpo aldera, babesgabezi eta ingurukoek eta gizarteak abandonatua sentitzen denari solidaritatezko babesgabe ematera irekiz.

Babesgabeziaren egoera hauen aurrean, begira diezaiokegu Jesusi. Bera babesgabeziaren babesgabeena izan zen, Bizia emateko gurutziltzatua izaten utzi zena, horrela bizitza nahigabetu baten zentzu-falta bizi duen orori defentsa emateko.

Bibliako pasarteak: Is 1,14-19

Biziki gorroto ditut zuen ilberri-jaiak eta festak; nekagarri zaizkit eta eramanezineko. Zuek otoitzetarako eskuak altxatzean, beste aldera begira jartzen naiz; nahiz eta zuek eskariak ugaltu, ez dizuet entzuten, eskuak odolez beteak baitituzue. Garbi zaitezte, garbitu! Kendu nire begien aurretik egin-tza gaiztoak! Utzi gaiztakeria, ikasi onbidea, saiatu zuzenbidean: lagundu zapalduari, egin justizia umezurtzari, defendatu alarguna! Honela dio Jaunak: «Zatozte, erabaki dezagun auzia: zuen bekatuak gorria baino gorriago badira ere, elurra bezain zuri geldituko dira; purpura bezain gorri izanik ere, artilearen antzeko bihurtuko dira. Nire esana egiteko prest bazaude, lurralde honek duen gozoenetik jango duzue».

Frantziskotar espiritualtasuna

Nork adieraz dezake Frantzisko dohatsuak behartsuei zien gupida? Berezko bihozberatasuna zuen benetan, Jainkoak isuritako gupidak bikoizten ziona. Bihotza urtu egiten zitzaion behartsuen aurrean, eta materialki lagundu ezin zienean, maitasuna eskaintzen zien. Edozein gabezia edo premia norbaitengan ikustean, barne gogoeta bizkorrez Kristorengana bideratzen zuen. Edozein behartsu-
rengan Andre Maria pobrearen Seme pobrea ikusten zuen.

Behin batean, Sienatik bueltan zetorrela, behartsu bat aurkitu zuen bidean, eta santuak esan zion lagunari: «Beharrezkoa da, anaia, mantua behartsu honi itzultzea, berea baita. Izan ere, guk maileguz hartu dugu, gu baino behartsuagoren bat aurkitu arte». Baina laguna, aita onberaren premia ikusiz, ezezkoan zegoen tinko, ezin ziela besteei lagundu eta bere buruaz ahaztu. Santuak, ordea: «Ez dut lapur izan nahi; lapurtzat hartuak izango ginateteke, guk baino behar handiagoa duenari emango ez bagenio». Amore eman zuen lagunak eta santuak mantua behartsuari.

Otoitza

Jauna, lagun iezaguzu
geure begirada mundutar, egoista,
konpromiso gutxikoa,
beldurtia, eroso betea... aldatzen.

Ken estalkia gure begiei,
horrela, begiak irekita,
besteen alde gupida gaitezen,
eta geure barru-barrutik
mugitu,
esku bat emateko
(eta bestea, eta bizitza osoa...)
bide bazterrean
eroriak daudenei,
gizarte itsu honek albora
bota ditueni,

ez dutelako konturik
edo ez direlako interesgarri
merkatuaren legeentzat.

Lagun, Jauna
ikusten
eta aldatzen...
zu ikusten
eta aukera egiten...
utzi zenizkigun
betaurreko eder horiek erabiltzen,
mundua, errealitatea,
bizitza ikusteko, hau da
Ebanjelioaren begirada,
zure Jainkozko begiez
ikusteko.

Gutuneko azken hitzak

“Jainkoak oraindik maite du mundua eta zu eta ni bidaltzen gaitu pobreekiko bere maitasun eta gupida izan gaitezen.” (Kalkutako ama Teresa)

2016ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 14, 23-29	8 Lk 24, 46-53	15 Jn 14, 15-16.23-26	22 Jn 16, 12-15	29 Lk 9, 11b-17
2 Jn 15, 26-16, 4a	9 Jn 16, 29-33	16 Mk 9, 14-29	23 Mk 10, 17-27	30 Mk 12, 1-12
3 Jn 14,6-14	10.Jn 17, 1-11a	17 Mk 9, 30-37	24 Mk 10, 28-31	31 Lk 1, 39-56
4 Jn 16,12-15	11 Jn 17,11b-19	18 Mk 9, 38-40	25 Mk 10, 32-45	
5 Jn 16,16-20	12 Jn 17, 20-26	19 Lk 22,14-20	26 Mk 10, 46-52	
6 Jn 16, 20-23a	13 Jn 21, 15-19	20 Mk 10, 1-12	27 Mk 11, 11-26	
7 Jn 16, 23b-28	14 Jn 15, 9-17	21 Mk 10, 13-16	28 Mk 11, 27-33	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea
646 21 48 96

Maiatzeko otoitza 26an izango da